



LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES
Viceconsejería de Vivienda
Dirección de Vivienda, Suelo y Arquitectura

**Gaia: NEXT GENERATION EU
ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO OBRAK
IKUSKATZEKO PLANA**

**Asunto: PLAN DE INSPECCION A
OBRAS DE REHABILITACIÓN DE
VIVIENDAS NEXT GENERATION EU**

Bizitegi-eraikinak birgaitzea Europar Batasunaren, estatu kideen eta autonomia-erkidegoen lehentasunetako bat da. Birgaitzeko laguntza-programei buruzko 2022ko ekainaren 21eko AGINDUaren babesean diruz lagundutako - Next Generation EU - birgaitzeak behar bezala gauzatu direla **egiaztatzeko ikuskapen-kanpaina bat** egingo da. Irismena, aipaturiko Euskadiko Agindu horren betekizunen arabera, eragin handiena duten obretako elementu berriak edo berrituak berrikustea da.

La rehabilitación de edificios residenciales es una de las prioridades de la Unión Europea, de los Estados Miembros, y de las comunidades autónomas. Con el objetivo de verificar la correcta ejecución de las rehabilitaciones subvencionadas al amparo de la ORDEN de 21 de junio de 2022, de programas de ayudas de rehabilitación - Next Generation EU, se va a realizar una **campana de inspecciones**. El alcance es la revisión de los elementos nuevos o renovados en las obras que tienen un mayor impacto en los requisitos de esta Orden de ayudas en Euskadi.

Horrek, obren ausazko laginketa egingo dela esan nahi du, eta obren berrikuspen dokumentala eta bisitak egingo direla, honako hauen birgaitze-proiektua eta obra kontrastatzeko: produktu isolatzaileak, isolamendu termikoko sistemak (Kanpoaldeko Isolamendu Termikoko Sistema eta fatxada aireztatuak), leihoak eta obretako instalazio berrituak.

Esto se traduce en un muestreo aleatorio de obras a las que se realizará una revisión documental y visitas de obra para contrastar el Proyecto de rehabilitación y la obra de: los productos aislantes, los sistemas de aislamiento térmico (SATE y fachadas ventiladas), las ventanas y las instalaciones renovadas en las obras.

Horregatik, diruz lagundutako obren sustatzaileei honako dokumentazio hau prest edukitzea eskatuko zaie, ikuskapena egiteko eskatuko dena:

Por ello, se va a pedir a los promotores de las obras subvencionadas que tengan preparada la siguiente documentación, que será requerida para realizar la inspección:

- Diruz lagundutako energia-eraginkortasuneko elementuak deskribatzen dituen aurrekontua eta memoria. Zehazki, isolamenduak, isolamendu termikoko sistemak, leihoak eta instalazioak deskribatu beharko dira.

- Presupuesto y memoria donde se describan los elementos de eficiencia energética subvencionados. En concreto, deberán estar descritos los aislamientos, sistemas de aislamiento térmico, ventanas e instalaciones.



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



- Obraren dokumentazioa. Bertan, hasierako proiektuarekiko produktu, material eta sistemen egungo egoera eta aldaketak adierazi behar dira.
- Documentación de la obra, señalando el estado actual y las modificaciones de productos, materiales y sistemas respecto al proyecto inicial.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 16an

Vitoria-Gasteiz, a 16 de enero de 2024

**ETXEBIZITZA, LURZORU ETA ARKITEKTURAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE VIVIENDA, SUELO Y ARQUITECTURA**

SIN/FDO: PABLO GARCÍA ASTRAIN

